

MOTXILARGI PROIEKTUA

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Motxilargi proiektua gazteek motxilan daramaten pisua murrizteko modu eder bat da. Honekin gazteek liburuekin dituzten arazoez ahaztu daitezke. Motxilan pisu handia dagoenean argi gorria piztuko baita, eta argi berdeak pisu egokia dagoela adieraziko du.

Motxila egokia izan dadin, uhal zabal eta bigunak ipiniko dizkiogu zorroa ahal den erosoan izan dadin. Bizkarraldea ere biguna izango da, objektu puntazorrotzek minik ez egiteko. Horrez gain, hainbat konpartimentukoa izango da gure motxila, pisua hobeto banatzeko. Helburua gehiegizko pisuak saihestea denez, motxilak pertsona bakoitzarengana egokituak egongo dira. Gehienezko pisua ezingo da bakoitzaren pisuaren %10a baina handiagoa izan, hau da 40 kilo pisatzen dituen batek ezingo du bere motxilan 4 kilo baino gehiagoko zama eraman. Horretarako, motxilari gure pisua zein den adieraziko diogu (programa baten bidez) eta bertako pisua aurretik aipaturikoa baina handiagoa bada, argi gorri bat piztu eta alarma moduko baten bidez ohartaraziko gaitu.